



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ARRAKASTA PROGRAMA

Unibertsitate arrakasta
akademikorako programa

www.ehu.es

Kolaboratzaileak



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ZER DA?

ARRAKASTA programa, unibertsitate arrakasta akademikorako Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiru foru aldundiek bultzatutako ekimen aitzindaria da. Programak baldintza egokiak sortu edota sendotu nahi ditu haur eta nerabeen babeserako eta gizarte-inklusiorako foru aldundien sistemen barruan dauden gazteek

aukera izan dezaten unibertsitatean sartzeko eta euren goi mailako ikasketak arrakastaz bukatzeko.

GARAIAN ikertaldeak hautemandako premiaren ondorioz sortu zen Arrakasta programa, UPV/EHUren gizarte konpromisoaren barruan kokaturik dago, eta gure unibertsitateak pertsona guztiei ekitatezko eta aukera-berdintasunezko baldintzak eskaintzeko duen kezka emaitza da.

ZER ESKAINTZEN DU?



Ikasleen Argibide Zerbitzuko teknikari batek unibertsitateko ikasketetan zehar banakako laguntza eta jarraipena egitea.



Tutore akademikoa ikastegian.



Ordenagailu eramangarriak maileguan.



Ikasteko materiala.



Fotokopiak eta inprimaketak.



Eta abar.

Arrakasta programa dinamikoa eta pertsonalizatua da, eta, beraz, gazte bakoitzaren beharren arabera ematen dira laguntzak.

NORENTZAT?

Euskal Autonomia Erkidegoko foru-aldundien haur eta nerabeak babesteko edo gizarteratzeko sistemaren pean adin-nagusitasunera iritsi

diren gazteentzat edo gaur egun sistema horretan jarraitzen dutenentzat.

NOLA PARTE HARTU?

1. Interesa duten pertsonak dagokion foru aldundiko Arrakasta programako pertsona erreferentearekin jarri behar dute harremanetan.
2. Programan parte hartzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren, aldundiko erreferenteak UPV/EHUko Ikasleentzako Argibide Zerbitzuari jakinaraziko dio programan parte hartzeko interesa duela.
3. Dagokion orientazio teknikaria ikaslearekin harremanetan jarriko da lehen elkarrizketa pertsonala egiteko eta egon daitezkeen beharrak zehazteko.

INFORMAZIO GEHIAGO ETA KONTAKTUA

Araba:

☎ 945 01 33 94

Bizkaia:

☎ 946 01 71 21 (Bilbao)

☎ 946 01 31 59 (Leioa)

Gipuzkoa:

☎ 943 01 82 56

Posta elektronikoa:

✉ iaz@ehu.eus

